

Joxepa Lizaso Illarramendi Xaxola
Zarautz, Gipuzkoa
(1918-1999)

Aurkibidea

Biografia



Bere aitak Elkanoko "Sasola" baserria saldu eta Zarauzko Santa Marina kalean etxea eraiki zuen. Bertan, "Xaxola" izeneko sagardotegi ezaguna zabaldu zuen. Sagardotegi giroan hezi eta hazi zen Joxepa, atsedean hartzera edota lagunartera hurbildutako baserritar, soldadu, apustuzale eta bertsolarien artean. Hantxe ezagutu zuen bere senar Hilario Epelde (argazkian). Emakume herrikoia, irekia eta hiztuna. Unean uneko esamolde, ateraldi, istorio eta jolaserako iaioa. 1987an grabazioa egin zitzaion "Zarauzko aiton-amonon hizkera" bekarako.

Zintak

ZAR-118

- **Proiektua:** Zarauztar aitona-amonen hizkera
- **Elkarrizketatzailea(k):** Díaz García, Elena
- **Data:** 1987-01-01
- **Iraupena:** 16 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Transkribatzailea(k):** Díaz García, Elena

Pasarteak

1. Lehengo sagardotegiak eta haien funtzionamendua

- **Erref:** ZAR-118/003
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:03:02. **Bukatu:** 00:04:44
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

Laburpena:

Lehen sagardotegi ugari zeuden Zarautzen: banan bana aipatzen du zeintzuk ziren eta non zeuden. Sagardoa botilaratu eta saldu egiten zuten, baina inguruan bakarrik, ez atzerrian.

Transkripzioa

- Orduan Zarautzen sagardotegi asko egoten zan?
- Sagardoteya?!! Bai... lau edo bost bat bai. Bai, geyo: Erreustanekua; Anttoninekua, Roialtiko behian; Mirandanekua, santa... zean, estaziyuan onduan; Etxiarrenekua... hoyek biñipin akordatzan naiz. Beste geyo're izango zen. Geo, osaba Manuel Marinekua, guria, eta geo nun zan bestela hola sagardotegiya...? Basarritan ta bai, baiño, ez, bestela, hamen Txulokua o hola zeozer, ez, ez, ez naiz akordatzan.
- Eta zein zekan fama gehien, edo zein zen onena?
- Bueno, onena sagardoteya, danak onak izaten dia, zeatikan geo asko saltzan zan enbotillatzeko. Bai! Eta geo, Erreustanian'ee bai. Oain Erreustanian etxe berriya nola ein due? Hor beyan'e sagardoteya ezagutu gendun. Ta hola konkursoik eta ez zan ezer izaten ordun; baizikan ahal dunak ahal dun bezela saldu iten zun. Ta iten gendun enbotillaketa Pasaira ere bai, hemen ingurua're bai, saltzan zianak. Zeatikan upelak eta... aber, hiru o lau milla litrok eta izaten zian: haundiyak dia, borobillak eta haundiyak.
- Esan dezu zuk sagardua bidaltzen ziñula Pasaia ta hola salduta. Ze iten ziñun, Euskal Herriyan bakarrik saldu, o kanpoa saltzan zenuen?
- Kanpora ez giñun, ez, ez. Geo etorri zen hori, baiño oain hemen, konpazio batea, iten zian, ba, zuk noa bialduko dituzu? Batek kapritxo zekala ta hartu bai, baiño sagardo botillatu; ta geo taberna, taberneta ta saltzan gendun, zeatikan aurtengo urtekua hurrungo urtian saltzeko botilletan enbotillatu ta hola ibiltzan giñan. Baiño extranjeroa ta hola ez. Geo hasi zan, zea, hori Roke...

2. Bertsoak sagardotegian

- **Erref:** ZAR-118/004
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:04:44. **Bukatu:** 00:05:46
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

Laburpena:

Sagardotegian bertso ugari entzuten zituen, eta haietako bat kantatzen du.

Transkripzioa

- Bertso edo berri asko entzuten al zenituen bertan?
- Batzuek bai, bai.
- Bertsoren bat kantatuko al zeniguke?
- Han aitzen nitunekuak? Horixe! Bat biñipin:

Neskazar bat tentatzen
Hasi naiz lenguan
Umil eta seriyo
Hitz egin genduan.
Izan ere, halako
Polita zeguan
Baiña gusto guztiyak
Ez dira munduan

Nerekin ezkonduzen
Dala hitz egin du
Gezurra publikatu
Txit gaizki egin du.
Pretenditu ninduen
Baiña ez agindu
Bai gustoko mutilla
Bihartu banindun.

Antonio Goñi zan
Pretendiente hau
Gezurra latsatzen
Erabilitu nau.
Ustez balio ditut
Hark bezelako lau
Ostikuaz joko det
Toriatzen banau.

3. Sagardotegiko giroa

- **Erref:** ZAR-118/005
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:05:46. **Bukatu:** 00:06:49
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Emakumeak sagardoaren bila bakarrik joaten ziren sagardotegira, ez errondan. Hilean behin barrikotea izaten zuten: barrika txiki batean sagardo onena jartzen zuten, eta lagun onen artean edaten zuten bukatu arte. Festa polita egiten zuten orduan.

Transkripzioa

- Emakumeak ere joaten al ziren sagardotegira?
- Sagarduan billa bai; baiño hola jatea ta ez, rondan ta ez, gizonak bakarrikan.
- Eta gizonak ze juten zian, lanetik ateratakuan?
- Bai, bai, geo izaten genduan hillian behin o horrela, barrikotia deitzen zan. Izaten zan barrika txiki bat preparatzen gendun, bueno, preparatutzen zitun, ba, gure aita eta. Sagardo ona puntuan zeonian, enbotillatu ta in biharrian, launan artian jaten zuen, jan ta eran. Geo izaten zan barrika txiki hoyek, ardo barrika hoitakoa; eta dana hustu arte, jan ta eran, ta jan ta eran, ta klaro, geo ba jendia sagardua're ona izaten zan... Ur gutxikua baldin bazan, ba, itxieakuan bi launek laundu ein bihar, bakarrikan tente jun ezin, ta holakuak'e pasatzen zian, bai... Geo esaten zuen lo inda pasa iten zala, ta hurrungo egunian berri-berri etortzen zian, baiño holakuak ibiltzen zian sagardoteyan. Ta geo juerga haundiya iten giñun, joku batzuk 'e bazituen beak eta alkarrekin, ta axeri-dantza ta hor esaten zituenak, eta hola; baiño festa polita iten zuen.

4. Sagardotegian egiten ziren jolasak

- **Erref:** ZAR-118/006
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:06:49. **Bukatu:** 00:08:25
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lanbideak » Udal langileak
- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

Laburpena:

Sagardotegiko gizonak zer jolasetan ibiltzen ziren kontatzen du: jokoan aritzen ziren, apustuak egiten zituzten... eta batzuetan baita haserretu ere. Orduan borrokak izaten ziren. Etxera joateko presarik ez zutenak eguna argitu zain han egoten ziren, eta gauzainak bidali behar izaten zituen kalera. Beste batzuk, ordea, goizeko seietako meza entzutera joaten ziren zuzenean, etxera joan aurretik.

Transkripzioa

- Esan dezu jolas batzuk'e iten zituela. Kontatuko al zeniguke bat?
- Ba, gizaseme bat jartzen zan eskuak behien jarri, horrela, tente, ta hankak, hankak bi hankak'e alkarren hola euki bihar izaten zian, tente. Ta jartzen ziyoen baso sagardo bat, basua hola bete-bete-betia ez, hola, koroyakin pixkat falta zula. Ta jartzen ziyoen buruan, eta ordun dantzan in ber izaten zun, osea, ipurdiyakin lurra jo bihar izaten zun basua erori gabe. Aber... holaxen. Ta festa egiten zuen geo, batzuei ondo ateratzen zitzakoen, eta besteei gaizki ateartzen zitzakoen; ta geo, berriz, esaten zuen, "bueno, nik in baietz, eta ezetz". Ronda igual zeatzen zuen: dirurik ez, baiña ronda bai, jokatu ta bai. festa politak iten zituen, pakian. Geo

haserriak eta izaten zian: gehitxo eraten zuenian, galdua min, eta jokuan iten zuen, musian iten zuen bi-bitan. Ta bakizue, galtzen zunak, ba, min; haserretu iten zian, ta geo kanpoa atea, ta borrokan'e bai, ta... Geo periya zanian, berriz, bakizu perikuak etortzen zian hara, ta sagardo ta bixigu erria jan, ta etxea juteko presikan gabe, eguna zabaldu zai hantxe eoten zian; jun ber zunak baserrita, ataira atea, serenoak kalea bialtzen zitun ta. Ta batzuek, berriz, batzuek iten zuen seitako meza entzunda jun Fraileta. Geo hurrengo egunian etorri gabe Elkanotikan, ta... ze, hamabiyak arte eoten zian, ta parranda iten zuen, eta hauntza ta honuntza. Ta geo seitako meza entzun, ta ordun itxea. Oain parrandak nola iten dituen gaztiak, ordun'e hala iten zituen.

5. Sagardotegiko janaria eta edaria

- **Erref:** ZAR-118/007
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:08:25. **Bukatu:** 00:09:47
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Errezetak

Laburpena:

<p>Sagardotegian sagardoa bakarrik edaten zen. Sardina zaharrak eta arraina jaten ziren, eta haiek nola prestatzen zituzten azaltzen du.</p>

Transkripzioa

- Nahiz eta sagardotegia izan, sagardoaz aparte beste zerbait edaten al zuten bertara joaten zirenek?

- Ez, ez, ez, sagardoteyan ez. Sardiña zaharrak eta arraya ta hoyek bai, baiño bestela ez. Geo sardiña zarra're asko saltzen zan. Txorixua ta'e bai, paperian bitu, estrasan bitu, ta berotasun bat eman, zean, brasan, papera kendu ta barrua berua, berotuta geatzen da. Ta geo, beste askok iten zuen, berriz, sardiña launa o bosna platera batian jarri, guk gatza ematen giñun, baiña garbitu ta ezer in gabe, eskama ta guzti e! Jartzen zun, ta hartu ahala jarri. Osea ke ogiyan gaiñian zuk jartzen dezu zuria, eta plateretikan zuk hor jarri, bakoitzak beria jarri, ta iten da, zu jaten ari zean bitartian, bestia erre iten da, entenditzen? Ta gutxitxo iña baldin badao're, ba zuk zuria zaitu, ta hola're asko. Baiño burua ta tripak eta ezer kendu gabe jartzen gendun guk. Hori norbeak iten zun. Txarra izaten zan bixigua ta ekartzen zituenian: bixiguak lana haundiya du garbitzen... Ta danak presa nahi izaten zun, berriz. Ta bixigua erre ta geo, txitxarruak'e bai, txitxarruak'e berriz hola hezur bat eukitzen due gaiñian. Hori're kendu iten giñun, beti gustu txarra ematen ziyola o... ta lan haundiya iten giñun, bai. Ta geo, hola, sagardua edan, ta sagardua edan iten zuen, ta nehiko ogiya jan, ta holaxe. Intxaurrak asko, intxaurrak... ta gaztaa...

6. Gauzainak

- **Erref:** ZAR-118/008
- **Iraupena:** 0:00:44. **Hasi:** 00:09:47. **Bukatu:** 00:10:31
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lanbideak » Udal langileak

Laburpena:

Sagardotegian gaueko hamabietan zuten ixteko ordua; baina jendea etxera bidali ezinik ibiltzen ziren, eta gauzainak lagundu behar izaten zien. Gauzainen funtzioa zein izaten zen azaltzen du.

Transkripzioa

- Sagardotegia noiz arte egoten zen irekita?
- Uf! Hamabiyak arte zun ordua, baiña ez zan errespetatzen. Serenua etorrita're... uff! Bialdu eziñikan ta horrela, presikan gabe ibiltzen zan jendia, zapatua baldin bazan behintzat.
- Esan dezu serenua, ta serenua zer nahi du esan horrek?
Ba, serenuak esan nahi du, uain alguazillak nola ibiltzen dia hor? O ertzaiñak. Ordun zian bi gizon herriya zaitzen zuenak gabian: baten bat gaixotzen bazan, o mozkortuta borrokan hasten bazian, hartu, ta ispezioa eramaten zituen. Serenua hori da. Oain taillerretan nola dabe gizonak eoten dia gaba pasatzen, sua iten bada, o makinak zaitzen... ta serenuak, ordun serenua zan.

7. Sagardotegiko tresnak

- **Erref:** ZAR-118/009
- **Iraupena:** 0:02:51. **Hasi:** 00:10:31. **Bukatu:** 00:13:22
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
- Euskara » Lexikoa
- Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza

Laburpena:

<p>Hainbat tresnari buruz hitz egiten du: usulak, barrikak... Barriek nola funtzionatzen duten azaltzen du. Bezeroen zorrak apuntatzeko, klariona erabiltzen zuten.</p>

Transkripzioa

Oain beste gauza asko giñuzen ez dakizkizuenak o nahi dezuenak jakin, aber zertxio jakingo zendueken goguan. Ez dezue jakingo ursula're zer dan? Apuntatu, ba! Ursula: ursula da hogeita bi litroko ontzi bat, fiesta basketan ta hola ikusiko dituzue, hola gerriyan eramaten ditue, ba, [...] hola egurrezko zeakin... Jesus, zer da hori? Burniyakin, uztayakin... Ez dezue ikusi hori? Ezta're. Geo barrikak'e, barrikak'e... Uztayak badakizue nola dian barrikakuak? Bai o ez? Ardo barrikak eta nola dazkae uztayak? Egurra ta geo dake burniya. Bai? Eta nola sagardo iten gendunian, barrika beti iten giñun; barrikak iten du zulua berandu itxi behar zako, tapoya deitzen zakoe, aproposko kortxo batzuek izaten dia. Barrikak hola etzanda eoten dia e? Eta hemen dakaе zulua, klaro, sagardua juteko zulua. Eta hori itxitzien bada, itxitzien bada, horrek irakin iten du sagarduak, eta iten ditu itxita baldin badao, burniyak puskatu, ta sagardo dana isuritzen da, egurrak apartatzen zeatzen dialako. Eta iten da honbeste egunian laga tapatu gabe, eta iten du aparra, aparra. Eta ura ya bere galdan behera juten danian, atzea bete iten deu, zeatikan sagarduak indarra, indarra

sagarduak gora botatzen du aparra. Eta geo iya denboraldiya pasatzen danian, ya hillabete o ilbeherak, eta enfin, hola pasatzen dianean, atzea bete iten dia; baiño sagarduak'e bere zea badu. Gero kuadrillak etortzen zianian, danak diruakin ez zian etortzen, zeatikan "geo pagatuko dizut e!" Ta hola. Ta ba al dakizue ze ibiltzen gendun? Oain papera ta lapitza ibiltzen da. Tiza badakizue klareunak zer dian? Tizak txuri hoyek. Hau da barrika e? Eta jartzen gendun hola raia bat, hemen izenakin: o Juanito, o Pedro, o... nik banezkin nola izena zuen. Eta hasten nintzan hola, zenbat zor zian: konpaziyo batea, egun batian etortzen zan, eta lau konpromiso igual izaten zun, beste bat inbitatzen zionakin, sei baso. Perra haundiyan izaten zian, ta iten genun bat, bi, hiru, lau, bost... horrela kakua, ta gero seigarrena hola. Eta hori ba al dakizu zergatik zan? Geo bat, bi, hiru, lau, bosgarrena hola, bost, hamar, hamabost, hola errexo kontatzeko. Bestela, bat, bi, hiru, lau, bost, sei kontatu behar ziñun, "aber in iyozu hor". Gauza asko leno iten zianak, hoyek interesantiak dia, ez? Horrela, hola, eta iten gendun geo bost, hamar, hamabost... hola kontatu.

8. Txakolina

- **Erref:** ZAR-118/011
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:14:00. **Bukatu:** 00:16:20
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:

Joxeparen sagardotegia dagoeneko ez dago; haren ondoren, txakolindegia jarri zuten; eta geroago, taberna. Txakolina nola egiten den azaltzen du.

Transkripzioa

- Sagardotegi horrek oraindik zutik al dirau?
- Guriak ez, guriak ez.
- Zergaitik?
- Ba, geo taberna jarri zuen, ta beste beste bizimodu bat hartu zuen ta. Geo txakoliña jarri gendun, txakoliña; ta geo taberna... "así que"...
- Txakoliña nola iten da?
- Uf...! Txakoliña bat'e ez dezue konturatuko. Txakoliña iten da, hau da tolaría e? Matzotarrak ba al dakizue nolakuak dian? Ez, ta, ezzz... Matzotarrak haundiak izaten dia, bi eskutzeko o hola. Eta iten da mahatza bitu, aurrena mahatza bitu, eta iten deu oain lega ta dabe; leno, berriz, bizkarrian ibiltzen zan dana; baiño mastitikan jeisteko're, handikan hartu ta bizkarka jeisten zian danak, eta iyo're bai. Tolarea botatzen dezu txakoliña iteko mahatsa, eta iten da hankakin zapaldu. Hankahutsik jarri, eta hanka hankakin [...] zabaltzen. Eta gero, ba, zeatzen danian, ondo-ondo-ondo zapaldu iten danian, labatiba deitzen zako horrelako beste zea bat, gauza bat, labatiba. Dazka gantxo batzuek, ta molde bat balitz bezela, sartzen due han dana patza, eta istutu iten dia. Ta gero makinak dabe hola, hemen daude egurrak horrela, hola jarri, tornilluakin itxi... Ta oain dana automaitko ingo da, baiño ordun palanka batzuk izaten zian, bost gizon ta sei gizonek hola istutzen, hau istutzeko, patza istutzeko ibiltzen zian. Ta geo ematen giñuen afaya, zeatikan aurrenengo istutu, ta han estututa zeola, afaya ematen giñun, berriz'e beste hainbeste in ber zan: zabaldu, askatu, zabaldu, eta eskobariekin, leno esan dizuetena, eskoba batzuk, belarra biltzen ta ibiltzen ditue, eskobare batzuek holakoak balia bezela, dana

atzea xabal-xabal-xabal-xabal in patza, atzea bitu, eta... Hola iten zian.
Zailla. Hoiek danak han iten giñun guk, hola...
- Ura nahasten al zan, ba? Txakoliñarekin ura nahasten al zen?
- Bai, esaten zuen ez zula errezibitzen, baiño bai, bai. Geo ursuleta
ateratzen gendun, dana ursula, leno esan dizueten katxarro haundi
batzuek egurrezkoak. Segun... “así que”...

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-03-11

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com